antoja impensable que pueda ocurrir en otros ámbitos y modelos empresariales en los que no existen esos tipos de compromisos, ni pactados ni sobre todo reglamentados, como una de las razones de ser de la organización. Se dice y con razón que qué pasará con los no socios. Estos serán muy probablemente, junto a muchos proveedores inversores y ahorradores de FE, los principales damnificados o sacrificados de la crisis de FE y en el destino de estos colectivos se visualizarían con toda claridad, los límites, que por supuesto los tiene, del sistema cooperativo. Pero al menos sabemos que ya para ahora se han producido recolocaciones de desocupados de FE en otras empresas del grupo. Si se consigue recolocar a la totalidad de los desocupados junto a prejubilaciones y otras bajas no traumáticas se podrá decir con algún grado de satisfacción que el modelo cooperativo es diferente y mejor, al menos a la hora de rescatar a numerosas personas del destino de un paro casi seguro y reducir el alcance del colapso de la empresa. Aunque todavía habrá que ver el desenlace final.

Y dejo para el final la pregunta, para mi importante, porque me quedé con ella en su simplicidad y potencia, formulada por una determinada persona en un intercambio de opiniones en un determinado blog sobre el problema de FE y su liquidación, y que refleja con claridad uno de los principales dramas y contradicciones de este modelo.

A eso de salvar socios cooperativistas a costa de eventuales y no socios le llamarán Solidaridad Corporativa ¿Verdad? Tremenda pregunta. Mi respuesta. Estos son algunos de los límites del modelo. Hay bastantes más. Las deslocalizaciones y los malabares que muchas cooperativas hacen para sobrevivir

en un mundo tremendamente competitivo. Y todo no es posible. No hay soluciones para todo. No siempre se pueden salvar las empresas porque estas también tienen sus índices de mortalidad, llamémosle así, natural. Tampoco sé si es posible sobrevivir en esta jungla competitiva y mantener al mismo tiempo la pureza de los valores cooperativos.....y no tenemos otra jungla que esta porque es la única que existe con sus duras reglas de juego. El modelo cooperativo es imperfecto y no es ninguna panacea por supuesto pero es superior y mejor que el resto de modelos existentes en lo que se refiere a la participación y al reparto de las cargas y los beneficios entre los asociados, que no lo olvidemos, son empresarios-trabajadores, para bien y para mal. Lo que toca hacer ahora es mejorarlo para evitar en el futuro los errores que sean evitables y también tener muy en cuenta y apostar por las potencialidades del modelo nuevo estilo de relaciones laborales NER GROUP que ya tiene en Euskal-Herria una cierta implantación y unos resultados que ofrecer y estudiar y del cual Koldo Saratxaga es su principal referente intelectual.

Y a este respecto quiero terminar subrayando la excelente impresión que recibí sobre la aplicación de este modelo NER en la charla organizada por Lemniskata el pasado mes de Marzo en el Palacio de Igartza y en la que dos representantes de la empresa AMPO expusieron de una manera sucinta y brillante la aplicación de este modelo en su empresa. A ver si en una futura conferencia tenemos la suerte y la opción de que nos ofrezcan un desarrollo monográfico sobre esta interesantísima experiencia.

ANDONI LEONE



Beasain 943880478


Alzuri
ARGAZKI DENDAK
www.fotoalzuri.com

Urretxu 943725884

Beasain, el antiguo y nuevo ferrocarril

No tiene nada que ver el antiguo trazado guipuzcoano del ferrocarril de 1.863/1.864 con el que se inaugurará en pleno siglo XXI. No hay más que observar ambos trazados en el plano nº 1 para darnos cuenta de su diferencia en cuanto a trayectoria. Sobre dicho plano de Beasain hemos sobrepuesto el nuevo trazado casi directo del moderno Tren de Alta Velocidad que señalamos con las letras NL (Nueva Línea).

de 153,6 metros de longitud; otro puente elevado sobre el trazado de tren en Igartza para respetar la servidumbre de los antiguos caminos hacia Olaberria y Segura, más dos largos desvíos de unos 400 y 200 metros de longitud efectuados a la antigua Calzada General de Coches trazada por Ibero hacia 1.770; y, además, el propio tendido férreo de más de seis kilómetros de longitud por la actual jurisdicción de Beasain.



Ese plano también determina con claridad que la línea antigua de tren sigue a grandes rasgos el fondo del valle, en este caso el del serpenteante río Oria. Se corresponde con la línea negra salpicada de pequeños circulitos del mismo color que señalamos a su vez con las letras VT (Viejo Trazado).

Las primeras obras que se efectuaron dentro de la actual jurisdicción de Beasain entre los años 1.859 y 1.864 se podrían resumir así:

Tres puentes de sillería sobre el río Oria; otro mixto sobre el Agauntza entre Beasain y Lazkao; cinco pasos subterráneos bajo el trazado férreo; tres pasos a nivel; las obras de la Estación, con sus infraestructuras de vías, edificios, talleres y almacenes; tres casas para los funcionarios guardabarreras; dos túneles, uno de 77,12 metros y el otro

En teoría, el proyecto del viejo tren contemplaba curvas con una radio mínimo de unos 300 metros; y precisamente por ello en Beasain se optó por desviar un pequeño tramo del río Eztanda, con objeto de evitar la construcción de un nuevo puente para el tren, dado que salía más barato el desvío del cauce que edificar un quinto paso sobre el río para el ferrocarril.

En contraposición a lo anterior, las obras del actual trazado del TAV por Beasain son también mayores sobre el papel, aunque se podrían resumir en apenas

tres frases: **Cuatro viaductos, un paso de 80 metros a ras de tierra y cinco túneles.** La dura realidad nos dice que son obras gigantescas y de mucho mayor calado que las trazadas entre 1.859 y 1.864; descritas de dicha manera no parecen demasiado, pero en la práctica, si tenemos en cuenta los datos que resumimos a continuación, resultan faraónicas.

Para que sirva de comparación tecnológica con respecto al viejo trazado del siglo XIX diremos que las escasas curvas que contempla el nuevo proyecto del TAV tienen unos 3.000 metros de radio, es decir, son diez veces más amplias que las contempladas para aquel antiguo proyecto ferroviario acabado entre 1.863 y 1.864.

Estos son los cuatro viaductos del TAV que hemos citado a su paso por Beasain:

Valle de Mariaratz, de 111 metros de longitud (sumando los tramos pertenecientes a Beasain y Ordizia); barranco de San Martín-Maleza, de 52,6 metros; vertiente de Salsamendi-Itola, de 382 metros de recorrido; valle de Arriaran, por la zona de la regata Zabalondo, de 224 metros; a estos cuatro habría que añadir el paso a ras de suelo, desde una boca de túnel a la otra, en el barrio de Gudugarreta. Observar dichos viaductos acabados en el cuadro nº 3 de cuatro fotografías.

de San Martín-Maleza, 347 metros; paso por el extenso macizo bajo de Usurbe hasta la zona de Mariaratz, 1.968 metros de longitud.

La longitud total del TAV a su paso por Beasain es muy significativa y se resume así: Un trazado casi rectilíneo de unos 800 metros a través de los cuatro viaductos citados y otros 3,2 kilómetros de parecida trayectoria que transcurren por los túneles (dependiendo esta última longitud de los que apliquemos como correspondientes a



En el anterior plano nº 1 señalamos esos cuatro viaductos con pequeños círculos de color verde, donde también queremos esbozar sus longitudes aproximadas. El recorrido del TAV por el barrio de Gudugarreta, de tan solo 80 metros de longitud, lo esquematizamos en el mismo plano con tan solo dos pequeños semicírculos de color azul.

En cuanto a los cinco túneles de este trazado del TAV se corresponderían a su vez así:

Solazarreta, 750 metros, sumando en este caso las zonas conjuntas correspondientes a Ormaiztegi y Arriaran; túnel de acceso desde la zona de Arriaran a la vertiente de Itola, 467 metros; paso desde la zona anterior de Itola-Salsamendi a la de Gudugarreta, 201 metros; túnel de la zona de Gudugarreta hacia el valle

de Beasain en ese túnel mixto de Solazarreta). En resumen, que el trazado subterráneo del tren por Beasain se acercaría al 80% de su recorrido (en el viejo tendido férreo apenas había un 3,5% subterráneo).

El antiguo trazado del tren por la actual jurisdicción de Beasain (teniendo en cuenta que su recorrido se hacía entonces por las antiguas villas de Gudugarreta y Arriaran) rondaba en 1.863 los 6,5 km. de recorrido (salvo un centenar largo de metros que transcurren por Lazkao). Se desarrollaba más o menos (y se sigue desarrollando) desde el piquete kilométrico 576,050 en la muga Arriaran-Ormaiztegi hasta el 582,650 en la de Beasain-Ordizia).

Sin embargo, el nuevo trazado casi subterráneo tan solo suma unos 4 km. de

recorrido, más o menos el 60% de la longitud total del antiguo tendido. Observad en el cuadro nº 2 una secuencia de imágenes en las distintas obras del TAV a su paso por Arriaran, Itola, Gudugarreta, San Martín-Maleza y Mariaratz, obtenidas entre los años 2.009 y 2.012. Todas las fotos del lado izquierdo del cuadro muestran siempre el lugar antes del comienzo de las obras, y las de la derecha el mismo lugar una vez efectuados los desmontes necesarios para su consecución.

En estos momentos de grave crisis (económica y también de valores) se nos ocurren dos grandes "peros" para este trazado del TAV. Por una parte, el gran impacto ambiental que origina a pesar del porcentaje tan elevado de trazado subterráneo; no obstante, a nuestro juicio, el "pero" más importante es el monstruoso costo de la obra, que si bien podría ser "asumible" en el contexto económico de cuando se proyectó, actualmente resulta difícil de digerir. Lo creemos así pues resulta



evidente que en esta triste sociedad y en el momento actual existen prioridades mucho más importantes.

Son muy curiosas las comparaciones de costos por kilómetro entre ambos trazados ferroviarios, sobretodo teniendo en cuenta que "este matrimonio" tiene una diferencia de edad de 150 años; veámoslo:

La línea del ferrocarril Irun-Madrid de hacia mediados del siglo XIX se hizo realmente en tiempo record, pues se llevó a cabo en "apenas ocho años" (cinco años solo en Guipúzcoa); y, como casi todas las obras gigantescas, una cosa es lo presupuestado y otra sus costos reales. Bien es verdad que el Estado subvencionó una parte del proyecto a las empresas que acometieron de forma privada dichas obras, siempre a cambio de un largo contrato de explotación comercial. Hay datos dispares respecto a los mismos, aunque lo cierto es que los presupuestos del proyecto que se barajaron oficialmente se doblaron en la práctica.

Nos inclinamos por asumir ciertos datos que atribuyen costos reales de unos 350 millones de pesetas para todo el recorrido Irun-Madrid (el doble de lo presupuestado), con un trazado de unos 640 kilómetros. Pues bien, si hacemos caso a estas cifras, **el costo medio por kilómetro habría resultado hace 150 años de unas 540.000 pesetas o 2.160.000 reales** (en realidad las cifras que trasmitían en 1.863 se contabilizaban en reales).

Al contrario que la anterior, esta nueva línea del TAV por Guipuzcoa se inició precisamente en Mariaratz el 2/4/2.008, y no va a terminarse en cinco años como la antigua, sino que finalizará más bien entre los años 2.016 / 2.018. No hay cifras muy claras de costos –tampoco interesa darlas-, pero se están barajando unos importes que podrían oscilar finalmente para Guipúzcoa (hay que tomarlo de forma orientativa pues no son datos oficiales) entre los 28/30 millones de euros por cada kilómetro de trazado construido. También debemos considerar que no es comparable el coste de un kilómetro de nuestra complicada orografía con el de otro en plena meseta castellana.

Si –solo por mera curiosidad- convertimos a pesetas estas cifras anteriores para poder compararlas con los costos del año 1.863/1.864, veremos que su costo promedio fluctuaría ahora **entre los 4.650 y 4.950 millones de pesetas por cada kilómetro final de vía terminada.**

Si llevamos todo a longitudes de trazado más reducidas para hacerlas asequibles a nuestra comprensión, observaremos que se

reducirían de esta forma:

Entre 465/495 millones de pesetas por cada cien metros de trazado construido; entre 46,5/49,5 millones de pesetas por cada diez metros; o bien, entre 4,65/4,95 millones cada metro de trazado construido. Si en 1.863/1.864 cada metro importó 540 pesetas de media, ahora observamos que estos costos del nuevo TAV han costado unas 8.610/9.160 veces dicha cantidad, todo medido en pesetas corrientes.

Para no escandalizarnos vamos a utilizar ahora como patrón de medida comparativo los propios metros de trazado de vía; así veremos que hacia 1.863/1.864 se podía comprar una casa rural media sin terrenos en unos 13.000 reales (unas 3.250 pesetas), el equivalente en cuanto a costos de unos seis metros del antiguo trazado ferroviario. Para compararlo con el trazado actual, la siguiente pregunta sería: ¿Con los costos de seis metros del actual trazado del TAV por Gipuzkoa, qué tipo de casa podríamos comprar ahora? Si cada metro actual de trazado nos cuesta aproximadamente entre 4,65 y 4,95 millones de las antiguas pesetas, comprobaremos que por ese precio podríamos adquirir ahora un inmueble comprendido entre los 27,9 y 29,7 millones de las antiguas pesetas. O sea, que tampoco han cambiado demasiado las cosas entre 1.864 y 2.014 en el apartado inmobiliario, a pesar del grado de tecnificación actual. Lo que si ha cambiado es que, antiguamente un obrero del ferrocarril se podía comprar esa casa anterior en apenas cuatro años de trabajo y en la actualidad eso ya se ha desplazado de media a unos ocho años de trabajo.

Con dichos datos –e insistimos en que no son oficiales- tampoco nos podemos resistir a la tentación de efectuar unas últimas evaluaciones, entre ellas el costo aproximado del conjunto de la obra en su transcurrir por la provincia de Guipúzcoa. En este caso, dando por "buenas" las cifras anteriores y que el recorrido del trazado del TAV por Guipúzcoa sea ahora de 76 km. (la antigua línea de tren tenía unos 100 km.), tendríamos para el total del recorrido por Guipúzcoa un coste aproximado de unos 353.000/376.000 millones de las antiguas pesetas.

Llegando a este punto, en el supuesto de que cada guipuzcoano tuviese que pagar "cash" dicha obra, la siguiente pregunta que se nos ocurre es:

¿Cuanto nos costaría el trazado a cada uno?

Pues bien, si damos por buenos los datos del

I.N.E. de 2.013, que cifran los habitantes de Guipúzcoa en 710.000 personas, el importe a pagar por cada guipuzcoano oscilaría entre las 500.000/530.000 de las antiguas pesetas.

Son múltiples las comparaciones que se nos ocurren, aunque pensamos que cada lector puede hacerlo también siguiendo las cifras anteriores. No obstante, si nos involucramos en el tema de las hipotéticas amortizaciones, y seguimos con las "antidiluvianas" pesetas para compararlo en las mismas magnitudes, se nos ocurre finalmente esta otra pregunta:

¿Cuántos viajeros y cuantos años serán necesarios para amortizar todas estas inmensas cantidades?

Los cálculos los vamos a efectuar de forma sencilla y sin complicaciones (tal y como suelen hacerlo algunos políticos cuando les interesa manejar datos públicos), suponiendo que el dinero de cada billete sea todo ingreso neto, puesto que no observaremos las amortizaciones de los créditos, ni los gastos de explotación, ni el entretenimiento de las instalaciones, tampoco nuevas inversiones en el trazado y menos aun las inflaciones anuales de la moneda. En este caso tampoco contemplaremos los ingresos que se puedan originar por el transporte de mercancías, dado que no conocemos hasta el día de hoy ningún estudio claro sobre esta importante parcela de posibles ingresos.

Solo para hacer números redondos, supongamos que el costo medio de un billete de ida y vuelta Donosti-Bilbao o Donosti-Gasteiz alcance en un futuro próximo los 50 Euros (8.320 antiguas pesetas) en 2.020,

y que monten dicho año en ese nuevo TAV todos los habitantes de Guipúzcoa por lo menos una vez anual de promedio (250 viajeros cada salida, ocho viajes diarios, unos 2.000 viajeros al día, lo que haría un total anual de 730.000 viajeros). Pues bien, en ese caso -y solo en ese caso- se recaudarían en Guipúzcoa unos 5.900 millones de pesetas anuales brutas.

Con esta recaudación anual, y sin tener en cuenta ningún gasto de explotación, amortización, nuevas inversiones y entretenimiento de la instalación, tal y como hemos dicho antes, la tercera y última pregunta nos lleva a esto:

¿En cuantos años se amortizaría el costo de las obras?

Las cifras que obtendríamos con esa hipotética horquilla de costos que hemos reflejado en párrafos anteriores (repetimos que son aproximadas y no oficiales) oscilaría entre los 60 y 63,7 años.

¡Tan solo en el mejor de los supuestos toda una vida! Cada cual debe sacar sus propias conclusiones.

Fuentes: Del libro, "Beasain año 1.863, por los caminos del tren", de Martín García Garmendia e Igor García-Falces Poza.

Registro de Tolosa.

Estudios de D. Ricardo Rodríguez González.

"La construcción del ferrocarril por Gipuzkoa entre los años 1.859-1.864"

El nuevo tren TAV del siglo XXI a su paso por Gipuzkoa.

Fotografías: Martín García Garmendia.

MARTIN GARCIA GARMENDIA

natxo 
Dietetika - Belardenda

Ibulus/Ubillos/Ubillotz

“Toponimoaren forma arauturantz”

El caserío Ibulus o Ubillos se encontraba situado cerca de la empresa Fundiciones del Estanda hasta que fue derribado el año 2003. La denominación que normalmente han dado los beasaindarras al caserío es Ibulus, mientras que Ubillos es la forma que ha venido usándose durante siglos en los documentos de carácter oficial. Hay una tercera denominación, Ubillotz, que se ha introducido en tiempos recientes y tiene hoy cierta presencia a la hora de dar nombre a la zona donde se encontraba el caserío, al puente allí existente, etc. Ante esta diversidad de denominaciones, el artículo trata de establecer en esta primera entrega cuál puede ser el origen del nombre, y en una segunda entrega, el año que viene, se profundizará en la historia del mismo y se propondrá cuál podría ser la forma normalizada de este topónimo y apellido.

Ibulus / Ubillos toponimoa ezaguna da beasaindarraren artean, gehienbat urte batzuk badituztenen artean, Estanda inguruan zegoen etxe baten izena zelako. Toponimoa gutxiago erabiltzen da etxe hura bota zutenetik, logikoa den bezala, eta gaur egun apenas ahotan hartzen den ez bada etxe hartakoren bat aipatzeko, edota etxe hartaz diharduen historia kutsuko idatziren batean, edo etxearen inguruan zegoen eta oraindik zutik dirauen zubia —Estanda atzeko baratzeetara joateko balio duena— aipatzeko. Ibulus / Ubillos izen bikote horren atzean, ordea, biek leku bera izendatzen duten arren, bi erabilera eremu desberdin ditugu: Ibulus herritar arruntek leku horri eman ohi dioten izena da; Ubillos, berriz, aspalditik idatzietan forma «ofizial» moduan-edo erabili izan dena. Gainera, hirugarren izen bat ere badugu leku bera izendatzeko, azkeneko urteotan erabiltzen hasi dena: Ubillotz. Udalaren idatzietan eta maparen batean agertzen da berori, besteak beste, eta badirudi Ubillos ordezkatzeko ari dela azken honek mendeetan

izan duen estatus «ofizial» horretan.

Toponimo honek dituen hiru forma horiek harturik, bada, hiruretan zein erabili behar ote den argitzea edo, gutxienez, ideia bat ematea da idatzi honen helburua. Toponimoa egokia izan daiteke —bide batez esango dut— Estanda fundizioak eta horren ondoan diren nabeek osatzen duten multzoa izendatzeko, eta noizbait halakorik egitea erabakiko balitz ere, komeniko litzateke ordurako leku izen honen forma arautua zein den garbi izatea. Horretarako nire lerro hauek zerbaitetan laguntzen badute, konformatuko naiz horrekin.



1. IRUDIA. Ubillotz berria irakurtzen da artean baserri hori bota gabe zegoen garaiko mapa honen erdi parean. Ezkerrerago, etxearen izen bereko zubia ikus daiteke, Estanda ibaiaren gainean.

UBILLOTZ: TRADIZIO GUTXIKO ALDAERA

Toponimo bat arautu eta finkatzeko garaian inportantea da haren jatorria ezagutzea, are gehiago esku artean dugun honen gisako kasu batean, hiru forma desberdin baditugu. Batetik, bi hasiera desberdin ditugu: Ibul- / Ubi-. Bestetik, hiru amaiera desberdin: -us / -os / -otz. Halakoetan, lehenengo egin beharreko galdera izaten da, badaezpada, ea oinarrizko forma beraren hiru aldaera desberdin diren ala hemen, jatorrian, leku izen bat baino gehiago egon ote daitekeen.

Badirudi, ordea, ez dagoela zalantza handirik. Ibulus / Ubillos / Ubillotz hirukote horretan ez dago batetik bestera alde handirik. Ibu- / Ubi- hasierako osagaia hartzen dugula, adibidez, eta itxuragatik besterik eman balezake ere, elementu berbera da bietan duguna, hizkuntzalariek metatesi deritzoten aldaketa fonetikoa tarteko dela, hau da, badirudi bi soinuk —kasu honetan bi bokalek— beren posizioak elkartrukatu dituztela. Bestela esanda: ikutu / ukitu bikotean gertatzen denaren antzeko zerbait. Bestela, -us / -os / -otz amaieren artean ez dago alde handirik eta ez dirudi logikoa horien azpian elementu bat baino gehiago dagoela pentsatzea.

Ibulus / Ubillos / Ubillotz aldaerak denak forma bakar batetik baldin badatoz, jatorrizko forma bakar hori zein den aurkitzea izango litzateke kontua. Horretarako hiru forma horietatik abiatuko ginateke, ea hiruretakoren batek «merezimendu» gehiago ote duen ikusteko. Ibulus aldaerak duen abantaila nagusia da herrikoa izatea, eta ezaugarri hori, hain zuzen, oso kontutan hartu ohi da toponimo bat arautzeko garaian. Ubillos aldaerari dagokionez, berriz, idatzizkora mugatzen da horren erabilera, baina, hori bai, tradizio guztiz sendoa eta finkatua du: Beasaingo agiriei begiratzen badiegu, XV. mendetik hona forma hori izan da erabat nagusi herriaren mendebaldean zegoen etxe hura izendatzeko (1).

Ubillotz, berriz, desberdina da aurrekoekin alderatuta, ez duelako ahozko tradizioirik, eta ezta, nik dakidala behintzat, XX. mendea baino lehenagoko idatzizko tradizioirik ere. Ezagutzen dudan lehen erreferentzia 1910ekoa da, Juan Carlos Guerra arrasatear heraldika adituarena (2). Guerrak ez du esaten, baina agerikoa da forma hori nondik aterea den: Ubillos = ubil + (h)otz ustezko etimologia batetik. Ubillotz iruditzen zait hortik aurrera hasiko zela erabiltzen, are gehiago Koldo Mitxelenak berak etimologia hori ontzat eman zuenean hainbat urte geroago: Mitxelenak, izan ere, Ubillos abizenaren bigarren osagaian (h)otz ikusi zuen euskal abizenari buruzko bere erreferentziazko lanaren lehen bi edizioetan, 1953an eta 1955ean. Aurrena (h)otz hitzarekin lotzen duelarik hainbat abizenetako -oz amaiera, lotura hori bera ezartzen du ondoren -os amaiera duten abizenekin ere: «La terminación -os se encuentra también en algunos apellidos: Galdos, Obanos, Ubillos, etc.» (Apellidos vascos Donostia, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 1953, 96. orrialdean eta 1955, 112. orrialdean).

Harrezkero, Guerraren eta Mitxelenaren iritzia hainbat lekutan errepikatu da, euskal heraldika edota euskal abizenari buruzko lanetan, eta, horietatik abiatuta, Ubillotz arrunt bilakatu da eta hainbat eremutan erabili izan da Ubillosen ordezko «jator» moduan (3). Ubillotz ohiko bihurtu izanak ez du ezabatzen, ordea, aldaera horren arazo nagusia: tradizioirik eta oinarri sendorik eza. Urteekin Mitxelenak iritzia nola aldatu zuen aipatuko dut aurrerago, eta neroni ere Ubillotz alde batera utzi eta beste bide batzuetatik saiaturiko naiz toponimo honen jatorrizko forma topatzen.



2. IRUDIA. Ibulus edo Ubillos baserria, Ormaiztegira doan errepidearen ondo-ondoan kokatua, errepidea baino beheago. Eskuineko argazkian, berriz, Ibulusko zubia gaur egun dagoen moduan.

IBULUS ALA UBILLOS?

Ubillotz bazterrera behin utzi ondoren, bi aukera gelditzen zaizkigu: Ibulus eta Ubillos. Horietako bat izendapen arautu edo «ofizial» gisa erabiltzeko bestea baino egokiagoa den ikusi beharko dugu, beraz, jarraian. Horretarako, baina, Beasaingo mugetatik atera eta pixka bat inguruan gertatzen denari begiratu beharko diogu.

Hainbat euskal toponimo badira Euskal Herriko geografian han-hemenka errepikatzen direnak. Toponimia txikian

aurkitzen ditugu batik bat halakoak, hau da, ohikoak dira, adibidez, izen berbera daramaten etxe eta alorrak; batzuetan herri berean ager daitezke eta beste batzuetan herri desberdinetan, nahiz egon herri horiek elkarren ondoan edo nahiz elkarrengatik urrun dauden lurralde historiko banatan. Toponimia handian ere gertatzen da halakorik, eta gertatzen da, adibidez, izen bereko auzo eta herriak egotea, eta are eskualdeak ere, elkarrengandik gertuago edo urrunago egon daitezkeenak baina izen bera daramatenak. Arantzazu, Gaintza, Etxebarri, Bastida, Elosua, Orendain, Uharte, Getaria, Etxarri, Elorriaga... horrelako kasuak ditugu, beste askoren artean, lurralde desberdinetan ageri diren auzo eta herrien izenak baina ez aipatzearren. Toponimia txikira jaisten bagara, Bidegain edo Etxarte gisako toponimoak zenbat lekutan agertzen diren zehaztea ia ezinezkoa litzateke, eta Ubillos eta bere aldaerak ere leku batean baino gehiagotan daude, nahiz goiko bi adibide horiek bezain ugaria izan ez.

Ondorioz, Beasain gisako leku izen baten nondik norakoak aztertzeke, derrigor, Nafarroako Beasain toponimoari eta oro har —Nafarroan, bereziki— -ain atzizkia duten leku izenei begiratu behar zaien bezala, Beasaingoberezitasun historiko-geografikoei bakarrik begira eta haiekin itsututa geratu gabe, Ubillos aztertzeke garaian ere ingurura begiratzea ezinbestekoa izango zaigu.

Gipuzkoako toponimiari begiratu bat ematen badiogu, bada, Luis Mari Mujikaren toponimo bilduma erabiliz, gutxienez honako hauek aipatzen dira: Berrobin Ibillos, Ibillots, Ubillos; Leaburun Ubillos, Ubielus; Beasainen Ibulus, Ubillos; Hernialden Ubillos; Billabonan Ubillosgaztañari, Ubilluts; Alkizan Ubulutz, Ubillos; Andoainen Ubillos, Ubillots; Zestoan Ubillosburua (4). Zerrenda hori ikusita zenbait ondorio atera daitezke. Lehena: Tolosa aldean ageri da maizen toponimo hau. Bigarrena: Ubillotz ez da inoiz ageri, espero zitekeen bezala (Mujikak berak parentesi artean erantsia, eta ez dokumentaziotik jaso, den kasu batean izan ezik). Hirugarrena: Ubillos kasu guztietan agertzen da. Laugarrena, eta momentu honetan niri gehien interesatzen zaidana: Beasaingo Ibulus aldaeraren -us amaiera hori berbera beste hainbat lekutan ere agertzen da, eta hori nekez izan daiteke

kasualitate.

Leaburuko kasuan zertxobait sakondu dut gainera, eta konturatu naiz Mujikak aipatzen dituenak baino aldaera gehiago dituela leku izen honek herri horretan (ik. 3. irudiko testuetan) (5).

Leaburu otorgado en Penitencia de un año del año
de 1711 el mismo día se hipotecó la casa de Ibulus y
Ibulus de sus pertenencias dadas en el día de Leaburu.

Refador mancomunado de un año de Leaburu, hi-
Ubielus porcazon, el primer lance casa llamada Ubielus, y el de

Ubielus de su parte y Ubielus con un año de Leaburu, hi-
Ubielus de su parte nombrada Ubielus y Ubielus en su parte

Cada uno de los señores de Leaburu para la seguridad del año
Ibulus. Como la casa de Ibulus con un año de Leaburu, hi-

3. IRUDIA. Ubillos eta Ubielus dira Leaburun Mujikak aurkitu zituen toponimo honen bi aldaerak. GPAH edo Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan, Oñatin, Hipoteken Kontularitza deritzon saileko aurkibidetik atereak dira bi horiek, baina aurkibide horiek ematen dituzten erreferentzietan sakonduz gero toponimo horren beraren aldaera gehiago ikus ditzakegu. Hemengo testu zatiotan, adibidez, Leaburuko sei aldaera ditugu: Ibulus (GPAH, H 480, 12. zk., 1741-03-25), Ubillus (GPAH, H 480, 125. zk., 1751-07-05), Ubillos eta Ubielus (GPAH, H 480, 169. zk., 1751-10-14), Ebulus eta Ebullos (GPAH, H 480, 43. zk., 1767-06-20).

Adibide horietako batzuk lursailen izenak direla dirudi baina beste batzuk, hain zuzen Leaburu, Beasain eta Andoaingo kasuetan bezala, Ubillos izeneko etxeak dira hor aipatzen direnak. Horrekin lotuta, hala ere, badira Ubillos izeneko pare bat etxe zerrenda horretan falta direnak: Zumaiakoa da lehenengoa, beheragoko argazkian ikusten duguna, eta Bizkaiko Muxika herrikoa bigarrena, Bizkaian dagoelako, hain zuzen, Mujikaren zerrenda horretan ezin ager zitekeena.

Ondorioz, bada, eta Ubillotz behin baztertu ondoren, Beasainen Ibulus eta Ubillos izenen artean dagoen zalantza hori, edo antzekoa, beste herri batzuetan ere ageri dela ikus daiteke. Eta galdera da: bietako bat bestea baino zuzenagoa ote? Horrelako zalantzak argitzeko agiri zaharretara izan ohi da

sarri irtenbidea, eta horixe da egin dudana. Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxibo Historikora jo dut hurrena, beraz, eta Interneten sakramentu liburuetako —bataioen, ezkontzen eta heriotzen berri ematen diguten eliz liburuetako— datuak kontsultatzeko dugun aukera bikainaz baliatu naiz auzi honetaz zerbait atera daitekeen ikusteko. Sakramentu liburuetan ez ditugu etxeen izenak aurkituko, baina, Ubillos abizena ere badelarik, XVI. mendetik hasi eta 1900. urtera arte abizen horrek izan duen bilakaera ikus dezakegu datu base horretan. Begiratu dut, bada, eta emaitzetan bada intereseko gauzarik: Ubillos da abizen honetan erabat nagusi den aldaera, ia beti agertzen dena, baina 1650 ingurura arte —Zumaiaiko kasuan 1750 ingurura arte— bazen gutxiagotan agertu arren hain arraroa ez zen beste aldaera bat ere: Ubilus edo Ubillus (6).

Laburtuz, bada, toponimo gisa Ubillos erabat nagusi den arren, Beasaingo lbulusek bezala -us amaiera duten aldaerak ere badira. Abizenen artean, berriz, Ubillos da halaber gaur egun ia erabat erabiltzen dena, baina Ubillus abizena ere bada, edo bazen, batik bat XVI- XVII. mendeetan (7). Panorama horrek lehen begiratu batean pentsarazten duena da ea ez ote diren Ubillus gisakoak, hots, -us amaiera duten aldaerak, Ubillos baino zaharragoak eta, beraz, jatorrizko formatik gertuago daudenak. Hori horrela izatera, Ubillos nondik nora sortua den azaldu beharko litzateke eta, jakina, Ubillus gisakoen atzean dagoen jatorrizko forma hori zein den aurkitzen saiatu beharko ginatke.

Lehenengo galderari dagokionez, Ubillus > Ubillos bilakaera azaldu lezake, nire ustez, eta besterik gabe, eskribauek Ubillus erdarara hurbildu izana. Erdarari -us amaiera arrotza zaionez, azkeneko bokala aldatu beste ezer egin beharrik gabe erdaraz onargarria ez ezik arrunta eta ohikoa ere baden -illos amaieradun toponimo eta abizen bihurtu zuten euskarazko jatorrizko forma. Ik. Sotillos, Cubillos, etab. Honako beste abizen honekin gertatu zenaren antzeko zerbait: Idiakaitz > Idiaquez. Eskribauek eta erdaraz ziharduten bestelako eragileek euskal onomastikan egin izan dituzten triskantzak ezagunak dira —ik. Hondarribia / Fuenterrabía eta hainbat horrelako— eta, horrenbestez, ez dago ezer arrarorik proposatzen ari naizen horretan.

Bigarren galderari dagokionez, berriz, hau da, Ubillus edo lbulus edo dena delakoa euskarazko forma originaletik gertuago baldin badago horren etimologia aurkitzen

saiatzeari dagokionez, geroxeago sartuko naiz horretan. Lehenbizi Mitxelenak honi buruz agertu zuen iritzia aipatu nahi nuke, izan ere, nahiz eta Mitxelenak euskal abizenei buruzko bere lanaren lehen bi edizioetan Ubillos abizena euskarazko (h)otz hitzarekin lotu, lehen aipatu dudan bezala, hipotesi hori ezabatu edo baztertu ez bazuen ere honako ohar hau erantsi zion lan beraren hirugarren edizioan: «En cuanto a los apellidos en -os, Ubillos aparece más de una vez escrito Ubillus en Zumaya, 1610» (Apellidos vascos, Donostia, Txertoa, 1973, 145. or.). Eta Mitxelenak, abizen honek -us amaieradun aldaerak ere bazituela konturatzeaz batera, bigarren etimologia bat ere proposatu zuen lan berean aurreraxeago: «Sería más hacedero buscar (h)uts en Ubillus, Ubillos, por ejemplo» (161. or.).

4. IRUDIA. Zumaian Ubillos deritzon jauregia. Ubillus abizena ere bazen aspaldi herri horretan: Ysabel Ubillus (1614-11-24an hila), Catalina Ubillus (1644-03-18an bataiatua), Francisco Xavier Muguerza Ubillus (1709-04-08an bataiatua), Francisca Antonia Ubillus (1749-04-28an hila), etab.

UBILLUS = UBI + ELUTS

Ubilla + (h)otz eta Ubilla + (h)uts ditugu, beraz, Mitxelenak aipatu zituen bi etimologiak. Ubilla, 'ur zurrumbiloa' esan nahi duen toponimo eta abizena lukete oinarri, beraz, bi etimologia horiek: «Ubilla, Ubillos (ubil, de ur-bil, 'vórtice')». Ik. Apellidos vascos, Donostia, Txertoa, 1973, 155. or. Ubilla + (h)otz gorago baztertu dugu dagoeneko, baina zer esan bigarren etimologia horretaz? Ubilla + (h)uts arraro samarra ere bada lehen begiratu batean, esanahi aldetik, izan ere zer da ur zurrumbilo huts bat? Gehiago dirudi, egia esateko, Ubilla + (h)otz etimologiak Ubillus gisakoak esplikatzeke ez zuela balio ikustean egileari —ehundaka abizen aztertzen dituen lan baten testuinguruan— bururatu zitzaion lehen irtenbidea, lehengoa baino etimologia hobea, bai, baina ez derrigor behin betikoa eta ezta, seguru asko, egilea bera asebeteko lukeen horietakoa ere.

Baina zein beste azalpen eman daiteke? Artzelus eta Insalus gisako izenen aurrean bururatu zitzaidan niri, lehen aldiz, lbulus izenarekin zerikusiren bat izan ote zezaketen. Guztietan, izan ere, -lus amaiera berbera baitugu. Baina zer zen amaiera hori? Nondik zetorren? Lizartzako Insalus toponimo eta enpresaizen ezinezagunagoaz Jesus Elosegik 1968an argitara zuen artikulu batek garbi utzi zuen hitzaren jatorria. Intsalus eta Intxaulus



gisakoak jaso zituen herriko eta inguruetakozaharretatik, eta ondoren, agiri zaharretara jo zuenean, hitzaren jatorrizko forma agertu zitzaion: Inchaurrelus. Bestela esanda: intsaurredo intxaurre + eluts. Gure toponimoaren kasuan, bada, eta Elosegiren bide beretik, Mitxelena oinarri gisa proposatzen zuen ubilla ahaztu eta horren ordez ubi genuke lehen osagaia, Beasaingo toponimian bestela ere ezaguna zaigun elementua, eta hortik aurrerakoak ez du zailtasun berezirik: ubi + eluts > ubielu(t)s > ubilu(t)s. Azkeneko Ubiluts horretatik sortuak lirake: 1) Ubillu(t)s, -il- > -ill- bihurtu ondoren, bustiduraz, ohikoa den bezala; 2) Ibulu(t)s, gorago esan bezala lehen bi bokalen metatesi bidez.

Batetik, -eluts 'laiotz, ospel' osagaiari — Elustondo abizenean den berberari— dagokionez esan beharra dago gure inguruko toponimian ez dela ezezaguna, eta alderdi horretatik ez dagoela arazorik; hau da, Beasaingo euskara arruntean -eluts erabiltzen ez bada ere, eta nahiz eta askori hitz arrotza iruditu, hori ez da oztopo, inolaz ere, gure Ibulus etxearen izenaren oinarrian ubi + eluts dagoela onartzeko. Ataunen Don Juan Arin apaizak bildu zituen leku izenek, esate baterako, garbi erakusten digute eluts inguru hauetako toponimian zenbateraino den ezaguna: Eluspelz (1675), Larramuño elusa (1689), Musqui eluseta (1692), Iberondo elusa (1708), Eluseta de Oñaga (1778), Elusburua (1791), etab. Ik. «Contribución al estudio de la toponimia (Ataun)», BRSBAP XXV: 4, 513. or.

Bestaldetik, ubielu(t)s > ubilu(t)s gertatu zela esan dugu eta hortik datozela beste aldaerak: Ubillus, Ibulus, Ubillos, etab. Ubilus eta Ubillus gisakoak XVI. mendetik hona dokumentatuak ditugularik, gorago esana dugunez, Ubillos ere zer esanik ez, eta Ibulus edo horren kidekoak —Leaburuko Ibullus, hain zuzen, aipatua dugu gorago— XVIII. menderako behintzat bazirelarik, interesgarri litzateke gure hipotesi honentzat horien guztien oinarrian suposatu dugun aldaera, Ubielu(t)s, aurkitzea. Horretarako ez dugu urrutiegi joan beharrik, ordea, izan ere lehenago Luis Mari Mujikaren toponimo bildumaz aritu garenean hor agertu baitzaigu jada, Leaburuko toponimoen artean, bila gabiltzan jatorrizko Ubielu(t)s aldaera (9).

5. IRUDIA. Leaburuko honako hipotekatze agiri honetan Ubillos «ofiziala» erabili zuten hasieran baina gero ez zitzaien nahikoa iruditu, nonbait, eta etxearen beste izendapen «ez ofiziala» ere erantsi zuten lerro artean: Ubielus. Agiriaren amaieran, «entre reng(lone)s» erantsitako «ô Ubielus» hori errepikatuta dator, ziurtatzeko originalari dagokiola, eta ez gero gehitutakoa. Tolosako Miguel Agustín de Aranalde eskribaua, 1751-10-14 (Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, PT 501, 243r eta 244v).

Ubielus da, zehazki, Luis Mari Mujikak Hipoteken Kontularitzako indizeetan aurkitu zuen aldaera. Hipoteken Kontularitzako aipamen zehatza aurkitzea izan da hortik abiatuta nik egin dudana, eta aipamen horretan hipotekaren agiri originalaren berri ematen delarik, original hori ere aurkitzea. Artikulu honetan bien kopiak ikus daitezke: Hipoteken Kontularitzako aipamena eman dut lehenago (3. irudian); Aranalde eskribauaren eskutik ateratako agiri originala dago hemen ondoan (5. irudian). Luis Mari Mujikak, gainera, Mitxelenak aipatzen duen Zumaiaiko Ubillus, 1610ekoa, eta Leaburuko Ubielus lotzen ditu eta bien bigarren osagaia -eluts izan ote daitekeen susmoa adierazten du: «Ubillus 1610ean Leaburun Ubielus gisa ere azaltzeak bigarren konposagaia -eluts 'lugar sombrío' daitekeela dirudi» (Euskal toponimiazko materialeak I, 392. or., 77. oh.).

Neronek ere susmo berarekin hasi nuelarik bilaketa, ez dago esan beharrik, behin puntu honetara iritsita, Mujikarekin bat natorrela hor adierazi zuen susmo horrekin.

Besterik gabe, aurtengoz, ondo pasa festak!

OHARRAK

(1) Martín García Garmendiak 1468. urteko agiriren batean badatorrela dio («El caserío Ubillos o Ubillotz de Beasain», Txantxangorri,

17. alea, 2013ko apirila, 7. or.). Suposatzen dut 1468ko agiri hori Maria de Ubillos delako bat aipatzen duen berbera izango dela. Ik. López González, Miguel Ángel (zuz.), Beasain. Udallerri gipuzkoar baten historia. Historia de un municipio guipuzcoano, Beasain, 1987, 377. or. Astigarretako eta Gudugarretako unibertsitateek Segurarekin zituzten gorabeherekin loturiko 1470eko agiri batean ere badator: «Joango de Arreguigoiena e Garçia de Muxica e Joan de Ynsausti e Joango de Lassa e Pedro de Ubillos e Joango de Salsamendi e Lope de Asteasarán e Martín de Yrigoien» (1470-04-04). Ayerbe Iríbar, M.^a Rosa, Documentación medieval del Archivo Municipal de Segura. Tomo III (1450-1521), FDMPV 127, Donostia, Eusko Ikaskuntza - Gipuzkoako Foru Aldundia - Segurako Udala, 2006, 97. or.

(2) Bi aldaerok dakartza: Ubillos Ordizian; Ubillotz Andoainen. Euskal-erria aldizkarian 1882an eta 1887-88an «Diccionario heráldico de la nobleza guipuzcoana» lehenengo aldiz argitaratu zuenean hor ez datoz oraindik bi aldaera horiek. Geroago lan hori bera liburu baten atal gisa argitaratu zuelarik, 1910ean eta 1928an, orduan aipatu zituen. Ik. Estudios de heráldica vasca, Donostia, 1910, 180. or. (eta Donostia, 1928, 201. or.). Deigarria da, bestalde, Juan Carlos Guerrak berak Gipuzkoako abizenak bildu zituelarik data eta datu historiko zehatzak oinarri hartuta, hor Ubillotz ez agertzea, Obillos eta Ubillos baizik. Ik. «Ensayo de un padrón histórico de Guipúzcoa según el orden de sus familias pobladoras», Euskal-erria XXXIX, 1898, 2. seihilab., 12. or.; XLVIII, 1903, 1. seihilab., 7. or.; LVIII, 1908, 1. seihilab., 123. or. Liburu gisa ere argitara zen izenburu berarekin: Donostia, 1929, 128, 408 eta 561. or.

(3) Adibidez, ik. Mitxelenak bere lana argitaratu eta berehala atera zen honako hau: Isaac López-Mendizabal, Etimologías

 <p>bereziak</p> <p>Jose Martin Barandiaran</p> <p>t. 943 880 070 m. 639 141 137</p>	 <p>San Martin</p> <p>delicatessen</p> <p>nagusia 29 20200 beasain gipuzkoa</p>
--	---

de apellidos vascos, Buenos Aires, Librería del Colegio, 1958, 710. or. Heraldika arloan bi lan klasiko hauek aipa daitezke: Alberto eta Arturo García Carraffa, El solar vasconavarro VI, Donostia, Librería Internacional, 1967, 139. or.; Jaime de Querexeta, Diccionario onomástico y heráldico vasco III, Bilbo, BLGEV, 1972, 263. or. Ubillotz hedatu zen horrela eta, esate baterako, izan da Juan Antonio Ubillos XVIII. mendeko euskal idazlearen abizena Ubillotz bihurtu duenik ere (Euzko-Gogoia, 1958, martxo-apirila, 239. or.).

(4) Ik. Euskal toponimiazko materialeak, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1989. Honako hauek dira herri bakoitzeko adibideen erreferentzia zehatzak: Berrobi (I. alea, 126 eta 136. or.), Leaburu (I. alea, 392. or.), Beasain (IV. alea, 280 eta 321. or.), Hernialde (V. alea, 162. or.), Billabona (V. alea, 294. or.), Alkiza (V. alea, 368. or.), Andoain (VI. alea, 337. or.), Zestoa (XI. alea, 377. or.). Beasaingo Ibulus izenaren antz handia duten honako toponimoak ez ditut kontuan hartu, izan ere, Ubillos alboan ez dutelarik, ez nuen ziurtasunik jatorri berekoak ote diren: Zegamako Iburusteta (IX. alea, 279. or.), Errezilgo Igulus (XI. alea, 223. or.), Legazpiko Iburuzketa (XIV. alea, 220. or.), Elgoibarko Iburus (XV. alea, 216. or.), Eibarko Iburus (XV. alea, 350. or.), Soralezeko Iburuz (XVI. alea, 98. or.), Bergarako Iburuz (XVI. alea, 235. or.), Aretxabaletko Ibuluz eta Igurus (XVI. alea, 375-376. or.), Elgetako Iburusbaio (XVII. alea, 203. or.), Eskoriatzako Ibulutz (XVII. alea, 312. or.). Begiratzea mereziko lukete beharbada.

(5) Ahaztu gabe, hori bai, Ubillos direla leku izen honen agerraldi gehienak (% 90etik gora). Hipoteken Kontularitzako Leaburuak agiritan, 3. irudian ipini direnez kanpo, Ubillos ez diren beste kasu hauek bakarrik aurkitu ditugu: Ubillos eta Ubielus (H 504, 211. zk., 1751-10-14), Ebulus (H 480, 77. zk., 1756-07-29), Ebullos (H 480, 40. zk., 1763-02-12), Ebullos (H 501, 136. zk., 1772-06-02), Ebulus (H 501, 163. zk., 1772-07-23), Ebullos (H 480, 189. or., 1772-07-23). Begibistakoa da, bestalde, XIX. mendea baino lehenagokoak direla adibide horiek guztiak; badirudi Ubillos ez diren beste forma guztiak XVIII. mendetik aurrera ezkutatu egin zirela agiritatik.

(6) Azkoitia (Ubilus, 1568), Zumaia (Ubillus, 1614), Donostia (Ubillus, 1615), Oñati (Ubillus, 1630), etab. Bizkaian ere, Abandon eta Bilbon, badira zenbait adibide (Ubilus, 1630). Ugariagoak dira, esan bezala, Ubilos edo Ubillos aldaerak (XVI. mendeko adibideak baino ez ditut aipatu): Muxika (Ubillos,

1555), Beasain (Ubillos, 1559), Azkoitia (Ubillos, 1564), Beasain (Ubilos, 1566), Aduna (Ubillos, 1574), Azpeitia (Ubillos, 1576), Muxika (Ubilos, 1597), Guardia (Ubillos, 1597).

(7) Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxibo Historikoko datuetan, Gabiriako Ubillus bat aipatzen da XIX. mende bukaeran. López-Mendizabalek Uruguain ere badela aipatu zuen, eta Interneteko datuei kasu egiten badiegu, Ekuador eta Perun batez ere bada hainbat jende abizen hori daramana.

(8) Ubillos izenari buruz irakurri dudan azken etimologia aipatzearen, Martín Garcíaak «Urbi txipi» esan nahi duela dio 1. oharrean aipatu den artikuluan. Ubiñarte «Urbi aundi» izango omen litzateke, eta Ubillos, berriz, «Urbi txipi». Egileak ez dio nondik atera dituen ondorio horiek —beharbada, -illos erdarazko atzizki txikigarria delakoan— baina badirudi, nik ulertzen diodanagatik behintzat, errota bat leku horretan kokatu nahian-edo erabiltzen dituela. Aspalditik dabil egilea 1409. urteko agiri batean aipatzen omen den «Hubiñarteko errota» delako baten atzetik, izan ere 2006an zera idatzi zuen aldizkari honetan bertan: «Resulta extraño dado su espléndido cauce, que desde “Errota txiki” y de la herrería situados en el casco urbano de Lazkao, no existiera ninguna otra herrería o molino más a lo largo del Agaunza, en este largo tramo de kilómetro y medio de buen cauce hasta su desembocadura con el Oria. ¿Cuál sería o dónde se situaría ese pretendido molino de Hubiñarte que citan?» (47. or.). Txantxangorri aldizkari iazko artikulu horretan, baina, egileak dio «Hubiñarteko errota» Ubillosko inguru honetan egon zitekeela, aipatu ditugun toponimia arloko argudioak erabiliz. Nire iritzirako ez dira zuzenak, ez ematen duen etimologia, ezta errota horren kokalekuaz hortik ateratzen dituen ondorioak ere. Martín Garcíaak oso ondo dokumentatuta dagoela erakusten du bere artikulu ederretako bakoitzean, eta, hain zuzen, ziurrenik berak ezagutuko duen testu batean dago, eta kasualitatez toponimiaren eskutik, berak bilatzen duen erantzuna. Zabala etxearen ondasunen honako zerrenda honetan, izan ere, auzi honetarako interesgarria izan daitekeen erreferentzia bat dator: «Iten las casas principales que están fundadas cerca de los muros de la dicha villa de Villafranca, a la puerta de Tolosa, con todas sus tierras, mançanales y castañales, que son el mançanal de Sagastiçaval, y dos pieças de pan llevar al portal de Aroztegui de la dicha villa, que sale para Segura, y más el mançanal

que compré de Juan Ochoa de Ysasaga, y los que compré de Juan López de Arranomendia, y Bernardino de Arteaga, juntamente con la isla que llaman Ubinarte, que todo cae en la parte que llaman YGUERIBIA, con más otras piezas de tierra que yo he comprado junto y linde de las tierras de la casa de Zavala, que son notorias a todos» (www.archivozavala.org). Ygueribia toponimoa gardena da eta garbi daude zein diren osatzen duten elementuak: igera + ibia. Eta igera, hain zuzen, 'errotá' da toponimia zaharrean. Horrenbestez, Ubiñarte inguruan errotako ibia 'vado del molino' baldin bazegoen, garbi dago Martín García bilatzen duen errota zein ingurutan zegoen.

(9) Ubielu(t)s hori dokumentatu ahal izatea ondo badatorrigu ere, agirietako lekukotzak kasu honetan ez dirudi ezinbestekoa: ubielu(t)s > ubilu(t)s bezalako murrizketa bat, izan ere, arrunta da eta ez du ezer apartekorik. Ik. Mujikaren lanean datozen zenbait adibide, -e- gabe -lus amaiera dutenak: Mitxetolus (Berrobi, I. alea, 130. or.),

Ardillus (Leaburu, I. alea, 376. or.), Ubarkalus (Ataun, IX. alea, 198. or.), Sagastilus (Errezil, XI. alea, 267. or.), Pagalus (Zarautz, XIII. alea, 99. or.), Urruzulus (Azkoitia, XIII. alea, 354. or.), etab. Halako guztiek ez bada gehienek elu(t)s lukete oinarrian. Leaburuko Ardillus horrentzat, adibidez: Ayerdielus. Ik. Tolosako Domingo de Ormaechea eskribaua, 1592-05-28 (Tolosako Hipoteken Kontularitza, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa, H 480, 171. zenbakia).



FIDEL ALTUNA OTEGI





ESTANDA

F U N D I C I O N E S

Gure esperientzia zure zerbitzura

Fundiciones Estanda enpresan metalurgia alorrean esperientzia handia edukitzeaz gain gure bezeroen beharrei erantzuteko galdaketa-teknologia egokia dugu.

1953tik aurrera punta-puntako teknologia erabiltzen dugu altzairuetan eta aleazio baxuko garapenean; eta horien arteko konbinazioak aukera aparta eskaintzen digu kalitate ezin hobea lortzeko gure produktuetan.

Nuestra experiencia a tu servicio

En Fundiciones Estanda contamos con una experiencia metalúrgica y una tecnología de fundición al servicio de las necesidades del cliente.

Desde 1953, estamos a la vanguardia de aceros de fundición y del desarrollo de bajas aleaciones, ofreciendo una combinación única en tecnologías de moldeo, fundición, desmoldeo y tratamiento térmico, mecanizado y diseño.



Caricaturas en rima libre



FOTO ALZURI: Eider Iraeta/ Xabier Iraeta

Eider es una artista junto a su aiatxo Xabier y en oto Alzuri les podemos ver su bonito escaparate a la vista está del buen hacer cámara en mano les podemos encontrar realizando sus reportajes con gran profesionalidad.




TIENDA DE POLLOS: Unai Mujika/ Pedro Luis Pérez

